


LIBROS



P. Iparragirre

EXKIXU

Txillardegí



Edizioa: 1984
ELKAR

Exkixu

Txillardegí
Elkar
720 pezeta.

Ezezagutzak sortzen digun lilura asetzea ez da erraza. Jakin nahi genuke arriskuan hautatu (aukerarik ba ote?) dutenen bizimodua, barnekezka, bizipoz eta nahia- ren berri, geure burua antzeko trantzeetan ikusi gabe ahatik. Haien pausoak jarraitze hortan irudimenak gogor lan egin dezake baina, badu mugarik ere. Orduan, bide zihurretik abiatzea erabaki genezake, bizitze hori ezagutu duenaren idazlanean mugiltzea, esate baterako.

Irakurketaren ondorioz, gauza bi gerta dakizkiguke. Begiak argitzea, bata, hainbat asmakizun pikutara joaten zaizkigularik errealtate dirudien horren indarrez, eta ametsak kentzea, bestea, gaizki deskribatua deritzagunaren aitzakiaz. Oker egon gintezke, bai batean zein bestean. Idazlan guztietan egilearen nortasuna eta mundua ikusteko

era berezia isladatzen direlako, irakurketa oron leitzen ari denaren barneak aintzindari papera hartzen duelako. Eta ez dezagun esan suerta dakigukena eskua bota diogun «materialea» nobela bat denean...

Erretolika luze hau «Exkixu»k sortu digu, Txillardegik argitara emandako azken nobelak. Eskuar- tean izan orduko irakurri baino gehiago irentsi genuen baina, nork jakin zergatia, zaila gertatzen zitzaigun haren aipamena egitea.

ETAko kide baten istorioa koadatzen zaigu bertan, jaio zenetik patuak gorde- tzen zionarekin topo egin arte. Arbasoetatik jasotzea izan duen ingurua desegina ikusiko du, urte gutxiren buruan, baserri giroan sortu- tako mutiko harek. Arrotzen izaita eta egiteak menperatu- tuko dute, geroztik, berak hainbeste maitatzen duen bazterra, euskal baserri- kume alai zena gaztetxo isil hiritarra bihurtuz. Erdal giro horretan baztertua senti- tuko da, baztertua ikusiko du bere famelia, ahal bezala egokitzen saiatzen ari den famelia hori eta, ia ohar- tzeke, une batez denetatik urrun somatuko du bere burua.

Geroztik, benetako nor- tasun ezaugarriak bilatu nahiean ibiliko da. Poliki po- liki, euskal sena berreskura- tzeko nahitaezkoa deritzaion ildotik abiatuko zaigu, ihar- dueraz eta ekitez.

Maitasunak keinu bat egin orduko, zauri sakon batez astinduko du patuak, berak gehien miresten duen per- tsonaren heriotzea opatuz. Gure artean maiz suertatu legez, badirudi norbaitek noizbait idatzitako gidoia betetzen ari dela gure la- guna. Poliziak kontrolatuko du auzoko hileta eta, beneta- koan parte hartu nahiez edo, ETAk Iparraldean antola- turik duenera joango da Antton, bertan erakunde- kide izango dituenetatik zen- bait ezagutuz.

«Exkixu»ren orrialdeetan aspaldiko ETA irudizka- tzen zaigu, Carrero hil eta geroxeagoraino iritsiz narra-

zioa. Ideologi ezberdinta- sunak, euskal borrokan zehar emandako hainbat za- tikitaren aztarnak ageri dira. Formazio ikastaldiak egin beharko ditu Anttonek eta horietan ezezagunak eta arrotz zaizkion pentsake- rekin topatuko du. Baina, argi izan, nobelan konda- tzen dena Anttonen bizia da, ez erakundearena. Ant- tonen pentsakera eta ekin- tzak bereiztuko dizkigu egi- leak. Bizimodu latz horre- tatik abiatu eta gero per- tsonaiak guztia epaitzeko duen era bakana nabari erazi. Beraz, manikeikeria genirudikeena protagonista denaren nortasunaren ispilu baino ez da, agian, izango.

Pausoz pauso jarrai de- zake irakurleak borrokari honen bizitza. Erakunde barneko erdaldunekin topo egiteak sortuko dion zirrara mikatza, hainbat kideekiko gordeko dituen estima eta mirespena, gutxien espero eta aurkituko duen maitasun oparoa... Legetzat hartzen denetik at bizi behar duenaren estuasunak ageri dira baita. Derrigorrezko isola- dearen berri emango zaigu, ia espero gabeko laguntza bidean atzemateak iraultzai- learen barnean sortu eraziko duen berotasun gozoa ahaztu gabe. Komisaldegiko etsaigo gorria, laguna gal- tzearen beldurra, garaile ir- teteagatik barruan gordetako sarraskia...


Ekintza da nagusi nobelan zehar. Irakurtzen denarekin ados izan ala ez, etengabeko irakurketan barneratuko dela edonor esatera ausar- tuko gara. Idazketa oro poli- tikoa den aldetik, «Exkixu» nobela politikoa izan daiteke baina, batere apala: ez den gure ustetan bederen, ge- hiago da ekintza narrazio bat. ETAko kideen bizimo- dura alboratzen gaituena, apika, irakurlearen adita- suna bereganatzen duena beti.

Cuaderno de escritura

Carlos Pujol
Pamiela
530 ptas.

Disquisiciones de un es- critor ante la obra que se niega a existir, podría deno-

CUADERNO DE
ESCRITURA CARLOS
PUJOL (Pamiela, 1984)



LA ESCUELA
BARCELONA

minarse también a este «Cuaderno de escritura» del ensayista, poeta y novelista (amén de profesor de literatura de la Escuela de Periodismo de Barcelona en cierto tiempo) Carlos Pujol, catalán en cuanto a origen, no así en lo que concierne a su escritura, por lo que nosotros sepamos.

Son un conjunto de pensamientos referidos al porqué, cómo y qué escribir, a veces irónicos, otras elípticos, siempre sagaces. No es un manual del buen hacer para aprendices, sino una seire de reflexiones con las que se enfrenta o pudiera llegar a enfrentarse todo aquél que decidió proseguir en el oficio de escritor.

«Curiosidades indiscretas que quizá no nos van a llevar muy lejos, pero que acompañan inevitablemente la fascinación de inventar castillos en el aire, lugares soñados donde no se puede vivir aunque completen y den sentido a lo que se viva» nos dice su autor.

Fueron elaboradas en 1984, mientras Carlos Pujol peleaba con una novela que se oponía terca- mente a existir, fruto, pues, de una desesperación transi- toria, como muy bien se nos indica en el prólogo. Tras los 96 aforismos, viene un pequeño ensayo sobre leer y escribir, lo que supone el ejercicio de ambos hechos, las preocupaciones de todo aquel que intenta trasladar una idea a un papel.

«Más que consejos, que siempre encierran el peligro de que alguien los siga, son avisos para la propia nave- gación, recordatorios de uso semiprivado que no as- piran a hacer prosélitos.